



HERRI BIZITZA LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2015/07/15

BILERA ZENBAKIA: 7

ORDUA ETA LEKUA: Arratsaldeko 19:00etan

PARTEHARTZAILEAK: Maddi, Irati, Rosi, Eli, Amaia, Unai, Josu, Aitor, Maite, Mikel, Amaia, Ainara, Ekaitz eta Joxe Luis.

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. Saioaren egitura.

- Saioa Testuinguruan kokatu da. Bileraren egitura azaldu da.
- Aztertu behar zen gaiaren inguruko informazioa eman da. Gaztelekuak dituen 6 urteko ibilbidearen nondik norakoak kontatu dira, kontutan hartuta bide honetan ondo egiten diren gauzak, topatu dituzten arazo eta zailtasunak eta hobetzeko proposamenak azalduz.
- Gazte asanbladako kideak proposamena egin dute.
- Talde hausnarketa egin da.

2. Taldean hausnartu dena.

Gaztelekua zer den eta zertarako den azaldu da. Horretarako eskuorri batzuk daude prestatuta, non hauek nerabe berriei bidaliko zaizkien etxeetara. Bertan zerbitzuaren nondik norakoak agertzen diren.

Ondoren, 6 urteko ibilbidearen balorazio txiki bat egin du, bere esperientziatik abiatuta eta nerabeekin lanketa egin da. Honela sailkatu dute balorazioa:

ONDO EGINAK:

- Aisialdiko ekintzak: Ekintzetatik prozesuetarako bidean gaude. Hasi ginenean ekintza hutsak ziren baina urteak aurrera egin ahala, egitasmoa forma hartzen joan da eta egiten diren ekintzak helburu batzuk lortzera bideratuta daude eta ekintzak prozesu baten barruan sartzen dira, zentzu bat dutelarik.
- Herrira begirako ekintzak egin dira; ez ditugu bakarrik nerabeentzat antolatu baizik eta nerabeek ere herrirako iharduerak prestatu dituzte; txistorrada, haurrentzako pelikulak, festetako pregoia, jolasak, e.a. Helburuak prozesu horretan kokatzen ditugu ekintza hauek. Izan ere



herritartasun aktiboa sustatu eta partehartzea bultzatu nahi dugu eta horretarako garrantzitsua da gaitasun eta konpetentzia jakin batzuk garatzea eta ekintza hauek konpetentzia horiek lortzera bideratuta zeuden (ekintzak antolatzekeo ardura hartu, ardura banaketa, konpromisoa, talde lana, auzolana ...).

- Eskolarekin harreman handia dago eta amankomunean ekintzak sortu dira. Nerabe batzuen jarraipena ere egin ahal izan da.
- Nerabeak batzordeetan ikusgarri egin ditugu: Nerabeak zenbait kasutan erdigunean jarri dira eta beraien interes eta beharrak mahai gainean jarri dira. Horrez gain, arestian aipatutako konpetentzia horiek lortzeko ere balio dute.
- Eragileekin elkarlana: Herrian dauden pertsonak, eragileak ezagutze aldera eta beraiekin elkarrekintza egiteko asmoz iharduerak prestatu dira, talo ikastaroa, sukalde ikastaroa, mami lehiaketa, pankarta tailerra, pintura tailerra...
- Pertsona erreferentea nerabeekin lanean. Haiseratik pertsona bakarra egoteak asko laguntzen du prozesuan. Oraingo nerabeak adibidez, 5 urtez doaz hezitzaile berdinarekin elkarlanean.

ZAILTASUNAK / OZTOPOAK:

- Datuen arabera, garbi dago guztiengana ez gabela iristen. Momentu honetan neska talde batekin ez dugu asmatu, beraien izaera dela eta egin denarekin ez dira beti gerturatzen. Herritar batzuk inoiz ez dira gerturatu eta kopurua handia da. Datuak esanguratsuak direla uste da.
- Baliabide eskasia: Urtean ematen diren 1000 € eskas xamar gelditzen da. Ez, eguneroko ekintzak egiteko baina, ikastaroren bat edo sartu nahi bada, hitzaldiren bat edo ez da iristen. Baliabide materialak ere eskasak dira. Urte pare bat edo ordenagailu gabe egon gara..
- Ainararen bakardadea: Pertsona bakarra egonik hori dena kudeatzen ez da erreza izaten, dana bere menpe dagoelako.

HOBETU BEHARREKOAK

- Gaztelekua eta gero zer? Autogestiorako jauzia nola?: Momentua iritsi da, izan ere, aktiboak diren 6 nerabeek eskaera egin dute. Gustora daude zerbitzuarekin eta jarraitu nahi dute ostiraletan bertara joaten baina bakarrik egoteko garaia ere iritsi zaiela uste dute. Zalantzak daude nola egin hau. Batzuk arautegiaren beharra azaldu dute, beste batzuk ezetz uste dute, arautegia baino gehiago uste da, funtzionamendua nerabeekin batera landu behar dela. Irailean landuko da.
- Izan ere, gazte asanbladak ere, erreleboa eskatzen dute eta uste da taldetxo hau prest dagoela jauzi hori egiteko eta proposamena egin zaie gazte asanbladan hasteko poliki poliki. Taldean eztabaidatzeko eskatu



zaie.

- Hezitzaileak landua du pixka bat gai hau nerabeekin eta datorren urtera begira ere planteamendu bat egin dago. Ikasturtearen hiruhilabetean antolatuta, bakoitzean lanketa bat egingo da, honela banatuta:
 - Iraila-Abendua bitartean: beste gauza batzuen artean, sormen gela hori antolatzekoak gara (materialez hornitu, beraien gustura jarri eta beraiek modu autonomoan erabiltzeko lanketa egin)
 - Urtarrila-Martxoa: Sormen tailerra egin nahi da. (Taila edo zeramika daude aukeran), tailerra herritar guztientzat izango da, sormen gela guztientzako baita.
 - Apirila-Ekaina: Beraiek nahi duten festa antolatu eta aurrera eramaten saiatuko gara.
- Garai berri baten edota ziklo berri baten aurrean gaudela uste da. Izan ere, nerabe hauek prest daude jautzia egiteko eta beste modu batera funtzionatzen hasteko. Horretarako Ainararen laguntza izango dute baina nerabe berriei ere jarri behar zaie arreta. Hain zuzen ere, tarteka etortzen diren 5 neskei eta etorri daitezkeen beste 5 neskei. Hauek zikloaren hasieran kokatuko ditugu eta beraz, beste modu batera funtzionatu behar da, hauen beharrak eta interesak desberdinak direlako.

3. Aurrerantzean eman beharreko pausuak. 2015-2016 ikasturtean.


Ikasturte berrian beraz guzti honi jarriko diogu arreta:

- ❖ Autogestiorako jautzian funtzionamendua arautuko da nerabeekin batera.
- ❖ Elkarrekin adostu den programa aurrera eramango da, beti ere autogestioaren gaiarekin lotuta (3 hilabeteko ekintza bat).
- ❖ Nerabe berriak, proiektuan murgiltzen: beharrak eta interesak ezagutu eta lanean hasi beraiekin. Beraiekin adostuko da programa.

4. Kultur ekintzen errepassoa.

Festa antolatzen ari direla buru belarri eta datorren astean, Uztailak 22, 18:00tan dela festa batzordeko bilera adierazten dute.

19:50etan bilera amaitutzat eman dugu.



ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Aurrekontuei buruzko erizpideak Emma-ri bidali.	Iraila aurretik	Talde eragileek.
HURRENGO BILERA		
<p>Hurrengo bilera, Uztailean egingo dugu. Gai ordena:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Kultur ekintzei buruzko informazioa. 2. Irailak 30ean izango da. Aurrekontuen banaketa irizpideak. 		